



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

**Gradu Amaierako Lana**

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2013/2014 ikasturtea**

### **HIZKUNTZA IDATZIAREN I(RA)KASKUNTZA URTXINTXA METODOARI JARRAITUZ**

**Egilea:** Erika Bergara Garrido

**Zuzendaria:** Kepa Larrea Muxika

**Leioan, 2014ko Ekainaren 9an**

© 2014, Erika Bergara

## AURKIBIDEA

<b>0. SARRERA</b>	4
<b>1. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA</b>	5
1.1. METODO BATEN DESKRIBAPENA	5
1.1.1. Ikuspuntua	5
1.1.2. Diseinua	6
1.1.3. Jardunbidea	6
1.2. IKUSPEGI ERAIKITZAILEA	6
1.2.1. Konstruktibismoaren oinarri orokorrak	6
1.2.2. Konstruktibismoa hizkuntza idatziaren ikaskuntzan	7
1.3. HAURRAREN GARAPENA IRAKURKETAN ETA IDAZKETAN	8
<b>2. METODOLOGIA</b>	9
2.1. TESTUINGURUA	9
2.2. IKERKETA HONEK ERANTZUN NAHI DITUEN GALDERAK	9
2.3. HELBURUAK	10
2.4. METODOLOGIA	10
2.4.1. Lagina (kasuaren azalpena)	11
2.4.2. Datuen bilketa eta datuen analisirako irizpideak	11
2.4.2.1. Urtxintxako 5 urteko irakaslearen gidaliburuaren azterketa	11
2.4.2.2. Idazketa eta irakurketaren inguruko behaketak ikasgelan	12
2.4.2.3. 5 urteko gelako irakasleentzako galdetegia	12
<b>3. LANAREN GARAPENA</b>	13
3.1. GIDALIBURUAREN AZTERKETA	13
3.1.1. Ikuspuntua	13
3.1.2. Diseinua	14
3.1.2.1. Helburuak	14
3.1.2.2. Programa eredia eta jarduera motak	15
3.1.2.3. Irakaslearen, ikaslearen eta materialen funtzioa	17
3.1.3. Jardunbidea	17
3.2. 5 URTEKO GELAN EGINDAKO BEHAKETEN AZTERKETA	18
3.3. GALDETEGIEN AZTERKETA	19
<b>4. EMAITZAK</b>	19
4.1. GIDALIBURUAREN AZTERKETAREN EMAITZAK	19
4.2. 5 URTEKO GELAN EGINDAKO BEHAKETEN EMAITZAK	22
4.3. GALDETEGIEN EMAITZAK	23
<b>5. ONDORIOAK</b>	25
<b>6. AZKENENGO HAUSNARKETA</b>	26
<b>7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b>	27
<b>ERANSKINAK</b>	
1. eranskina. Irakasleei egindako galdetegia.	28
2. eranskina. Behaketen txantiloia.	40
3. eranskina: Ikasleei egindako idazketa froga.	42

## HIZKUNTZA IDATZIAREN I(RA)KASKUNTZA URTXINTXA METODOARI JARRAITUZ

Erika Bergara Garrido

UPV/EHU

Lan hau, Ikastolen Elkartek sortutako Urtxintxa metodoaren 5 urteko irakaslearen gidaliburuaren idazten eta irakurtzen irakasteko atalaren analisisan oinarritzen da. Proiektu hau ikuspegi konstruktibista batetik eratu da, beraz, honetan idazten eta irakurtzen irakasteko erabiltzen den materialek teoria konstruktibistari jarraitzen diote. Material hau aztertu da Haur Hezkuntzako 5 urteko gelan idazketa eta irakurketa lantzeko zein neurritan erabilgarria den ezagutzeko helburuarekin.

Ikerketaren ondorioek agerian utzi dute Urtxintxa modu eraikitzailean eta globalizatuan hizkuntza idatzia lantzeko gida erabilgarria dela. Idazketa-irakurketaren inguruan proposatzen diren jarduerak hizkuntza idatziaren erabilera funtzionala sustatzen dute eta horrela, haurren ikasketa esanguratsua ziurtatzen dute.

*Urtxintxa. Konstruktibismoa. Haur Hezkuntza. Hizkuntza idatzia. Hasierako alfabetizazioa.*

Este trabajo trata del análisis de cómo enseñar a leer y a escribir mediante el guía del profesor de 5 años del método Urtxintxa creado por Ikastolen Elkartea. Este proyecto se ha creado desde una perspectiva constructivista, por tanto, el material utilizado para la enseñanza de la lecto-escritura sigue la teoría constructivista. Este material se ha analizado con el objetivo de conocer en que medida es útil para trabajar la lecto-escritura en el aula de 5 años de Educación Infantil

Las conclusiones de la investigación señalan que Urtxintxa es útil para trabajar la lecto-escritura de una manera globalizada y constructivista. Las actividades propuestas en torno a la lecto-escritura promueven la utilización funcional del lenguaje escrito, y así, aseguran el aprendizaje significativo de los niños.

*Urtxintxa. Constructivismo. Educación Infantil. Lenguaje escrito. Alfabetización inicial.*

This work deals with the analysis of how to teach reading and writing through the teacher's guide of five years of the Urtxintxa method created by the Ikastolen Elkartea. This project has been created from a constructivist perspective; therefore, the material used for teaching reading and writing follows the constructivist theory. This material has been analysed in order to know to what extent is useful to work reading and writing in the classroom of five years.

The conclusions of the investigation indicate that Urtxintxa is useful to teach reading and writing in a globalized and constructive way. The activities suggested around reading and writing promote the functional use of the written language, and thus, they ensure meaningful learning.

*Urtxintxa. Constructivism, Childhood Education. Written language. First alphabetization.*

## 0. SARRERA.

Ahozko hizkuntza edo komunikazio-gaitasuna modu naturalean garatzen da, baina hizkuntza idatzia, aldiz, ez da modu naturalean garatzen, era formalean ikasi egiten da eta. Haurrak eskolan duen zeregin garrantzitsuenetariko bat, hain zuzen ere, hizkuntza idatzia ikastea da. Hori dela eta, irakurketa eta idazketa nola lantzen diren ezagutzea garrantzitsua iruditzen zait. Ikerketa egiteko Urtxintxa metodoa aukeratu dut bi arrazoiengatik. Lehenik eta behin, planteamendu konstruktibista batetik diseinatuta dagoelako eta irakurtzen eta idazten irakasteko metodologia konstruktibistak ekarpenik interesgarrienak egiten dituela uste dudalako. Izan ere, planteamendu honek haurren erritmo desberdinak eta garapena errespetatzen ditu, horiek baitira beren ezagutzen eraikitzaileak. Bigarrenik, III. Practicum egin dudana Betiko Ikastolan Urtxintxa proiektuarekin lan egiten delako, eta hiru hilabetetan zehar bertan egonda, aukera ezin hobe izan dut benetan nola erabiltzen duten ikusteko, haurrak eta irakasleak behatzeko eta irakasleekin metodoaren eta haren aplikazioaren gainean mintzatzeko.

Beraz, lan honetan Urtxintxa proiektu berritzailea aztertu da, bertan, irakurketaren eta idazketaren irakaskuntzarako erabiltzen den metodologia eta materiala ezagutzeko eta horien erabilgarritasuna konprobatzeko. Honekin batera, Urtxintxa metodoa Betiko ikastolako 5 urteko bi geletan nola gauzatzen den behatu da. Horrez gain, 5 urteko irakaslearen gidaliburua aztertu da eta Betiko Ikastolako 5 urteko irakasleei galdetegia egin zaie, proiektuaren erabileraren inguruan datuak eskuratzeko asmoz.

Aurretik aipatu dudanez, hizkuntza idatzia haurrek eskolan duten ikaskuntzarik garrantzitsuenetako bat da. Baina, Urtxintxako irakaslearen gidaliburuan adierazten den moduan, “Haur Hezkuntzan tradizionalki irakurketa-idazketari buruz hitz egin denean, gehienetan, prozesuaren mekanikaren irakaskuntzaz hitz egin izan da. Horrela, metodo silabikoaz edo globalaz, letren ezagupenaz... eztabaidatu izan da” (Saenz et alii, 2010: 32 or.). Hau da, eskoletan tradizionalki idazketa irakatsi izan da (grafiak, fonemak, kaligrafia etab.), eta ondorioz, esanahia, testu motak etab. ez ziren lantzen, hizkuntza idatziaren funtzio soziala, hots, komunikazioa eta mezua, alde batera utziz.

Ildo beretik, egile berak hurrengo esaten du: “Urtxintxak hizkuntza idatziaren trataera orokorra proposatzen du (...) haurrei idatzizko komunikazio-esperientzia askotarikoak eta funtzionalak eskainiz, eta esperientzia horien inguruko hipotesiak eta hausnarketak garatzen lagunduz, idazketaren barne-egituraz bere modura jabetzeko bidean jarri nahi dira.” (Saenz et alii, 2010: 32 or.).

Beraz, Urtxintxa proiektuak teoria konstruktibistari jarraitzen dio eta Fonsek dioenez, teoria honen arabera ikaslea bera da bere ikaskuntza-prozesua eraikitzen duena, aurreko jakintzetan oinarrituta, elementu berriak gehituz. Ikaslea da bere ikaskuntzaren protagonista eta ikasgaiak bere bizitza esperientziarekin lotuz joango da. Beraz, ikasleak jarrera aktiboa izango du eta horrela, ikaskuntza esanguratsua izango da. Irakaslearen papera ikasleei beren jakintzak aktiboki eraikitzen laguntzea da, ikasleei ereduak eta imitatzekeo jarduerak eskainiz (Fons, 2008: 157 or.).

## **1. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA.**

### **1.1. Metodo baten deskribapena.**

Ikerketa honetan, Urtxintxako 5 urteko irakaslearen gidaliburua aztertu eta deskribatuko da. Horretarako, Richards eta Rodgersek (1986) metodo baten deskribapena egiteko proposatzen duten eskema erreferentziatza hartuko da. Egile horien arabera, metodo guztietan 3 atal desberdin bereizten dira: Ikuspuntua, diseinua eta jardunbidea. Izan ere, Richards eta Rodgersen hitzetan: “Un método se relaciona en el plano teórico con un enfoque, viene determinado por un diseño en lo relativo a la organización, y se aplica en la práctica con un procedimiento.” Richards eta Rodgers (1986: 23 or.). Jarraian, hiru atal horiek, ikuspuntua diseinua eta jardunbidea, modu sakonagoan azalduko dira.

#### *1.1.1. Ikuspuntua.*

Richards eta Rodgersek (1986: 23 or.) diotenez, ikuspuntuak hizkuntzaren izaerari eta haren ikasketari buruzko teoriak kontuan hartzen ditu, horiek baitira jardueren eta hizkuntzak irakasteko hastapenen iturriak.

Hizkuntzaren teoria atalean, hizkuntza eta ezagutza linguistikoaren izaeraren inguruko teoria desberdinak azaltzen dira, eta bertan zehazten dutenez, “Con respecto a la teoría lingüística, tenemos que definir el modelo de competencia lingüística y los rangos elementos básicos de la organización lingüística y el uso de la lengua.” Richards eta Rodgers (1986: 26 or.). Atal berean, gainera, hizkuntzaren ikasketan dauden prozesu kognitibo eta psikolinguistikoak eta ikasketa prozesu horiek aktibatzekeo beharrezkoak diren egoerak aipatzen dira Richards eta Rodgers (1986: 25 or.). Egile hauen arabera, ikaskuntzaren teorian, hizkuntzaren ikasketa eraginkorra erraztuko duten baldintzak eta prozesuak definitu behar dira (Richards eta Rodgersek, 1986: 26 or.).

Bestalde, egile hauek dioten moduan, ikuspuntu batek ez ditu berez prozedurak zehazten, teoria praktikarekin edo ikuspuntua jardunbidearekin uztartzen duena diseinua da Richards eta Rodgers (1986: 26 or.).

### *1.1.2. Diseinua.*

Richards eta Rodgersen (1986: 23 or.) arabera, diseinuan helburuak, programa eta edukiak zehazten dira, baita irakasleen, ikasleen eta irakaskuntza materialen zeregina. Zehazki egile hauen hitzetan:

El diseño es el nivel de análisis de un método en el que consideramos cuáles son los objetivos (...); cómo se selecciona y organiza el contenido de la lengua (...), es decir, el modelo de programa (...); los tipos de tareas de aprendizaje y de actividades de enseñanza (...); el papel de los alumnos (...), del profesor (...), de los materiales de enseñanza. (Richards eta Rodgers, 1986: 26, 27 or.).

### *1.1.3. Jardunbidea.*

Richards eta Rodgersen (1986) diote, jardunbidean, metodo zehatz bat erabiltzen denean hizkuntza baten irakaskuntzan agertzen diren teknika zehatzak, praktikak eta jarrerak azaltzen direla. Egile hauen hitzetan, “Se trata del nivel en el que describimos la manera en que se materializa el enfoque y el diseño de un método en el desarrollo de la clase. (...). En el nivel del procedimiento, nos preocupa cómo éstas tareas y actividades se integran en lecciones y se usan como base para la enseñanza y el aprendizaje (Richards eta Rodgers, 1986: 33 or.).

Bestalde, egile berek (1986: 33 or.) esaten dute, jardunbidean metodo baten irakaskuntza-aurrezpena, -jarduera eta -ebaluazio faseen izaera deskribatzen dela.

## **1.2. Ikuspegi eraikitzailea.**

### *1.2.1. Konstruktibismoaren oinarri orokorrak.*

Rosas eta Sebastianen hitzetan (2008: 8, 9 or.), konstruktibismoa teoria konduktistaren oposizio bezala sortu zen, azken honetan subjektu kognitiboa ez baitzen existitzen. Konstruktibismoan, berriz, nork bere ezagutzen egiturak eraikitzen ditu, hots, subjektua da bere jakintzen egituren eraikitzailea. Ildo berean, Fonsen arabera, aurretik aipatu den bezala, teoria konstruktibistaren ikuspegitik ikaslea bera da bere ikaskuntzaren protagonista eta, horrela jokatuz gero, ikaskuntza izango da esanguratsua, adierazgarria, erabilgarria eta ulergarria.

Bestalde, autore berak dioen moduan, irakaslearen rola da ikasleari ikasketa errazteko baliabideak eskaintzea, ikasketa gertatzeko egoerak sortuz. Horrek haurren ikaste-prozesuak laguntzailearen edo bideratzailearen rola beteko du (Fons, 2008: 157 or.). Rosas eta Sebastian (2008: 94-99 or.) Fonsen ideia honekin bat datoz. Horien arabera, Piageten ikuspegiari jarraituz, hezkuntza instituzioaren helburu nagusia da ikasleei garapen maximoa eskuratzeko beharrezko estimulu eta aukera eskaintzea. Horrela, irakaslearen eginbehar nagusia da haurren garapen etapari egokitutako ikasketa zereginak sortzea eta eskaintzea.

### *1.2.2. Konstruktibismoa hizkuntza idatziaren ikaskuntzan.*

Díez de Ulzurrunen hitzetan (2005: 11 or.), eredu konstruktibistari jarraituz, irakurketa eta idazketa elkarren arteko harremana duten bi prozesu direnez, hezkuntza egoeratan modu globalean landu behar dira, esanahia bermatzeko. Gainera, irakurketa eta idazketaren jabetzearen helburu nagusia haurren eta euren ingurune sozial eta kulturalen arteko komunikazio kanal berriak eta eraginkorragoak sortzea da.

Ibarrak (2010) esaten duen moduan, lehen hizkuntza idatziaren alde soziala ez zen kontuan hartzen, idazkera baino ez baitzen lantzen:

Ohiko irakurketa-idazketa ikuspuntuetan, (...) idaztea kopiatzearekin lotzen, identifikatzen da (ez ekoizpenarekin), eta irakurketa, deszifratzearekin (ez irakurketarekin). Orain arte pixkanaka eta zatiz zati irakatsi izan da, hizkuntza idatziaren berezkotasuna desitxuratuz; pentsatu izan da haurrak asoziazio bidez aurkituko diola zentzua berez elkarrekin inolako loturarik ez duten zatien baturari. (Ibarra, 2010: 29 or.).

Fons oinarri hartuta, hizkuntza idatziaren irakaskuntzan ez da pentsatu behar haurrak eskolara heltzen direnean ez dakitela ezer idazteaz eta irakurtzeaz. Garrantzitsua da ikasleak zer dakien jakitea. Hezitzaileak hizkuntza idatziarekin harremanak izan ditzaten egoerak eskaini behar dizkie, haurrek bere jakintza eraiki dezaten bere ezagupenak eta eskarmentua erabiliz. Beraz, irakasleak ikasleak ikasteko egoeran jarri eta bideratu behar ditu, haurren garapen hurbilaren bidez<sup>1</sup> (Fons, 2008: 158, 159 or.).

Bestalde, kontuan hartu behar da haur bakoitzaren garapen hurbila ezberdina dela eta ezin dela haur guztiei maila berbera eskatu. Honekin batera, hezitzaileak ez die

---

<sup>1</sup> Ikuspegi konstruktibistaren arabera, irakaslearen oinarritzko funtzioa da, Vigotskyren hitzetan, garapen hurbileko guneak sortzea. Hau da, ikasle bakoitzaren abiapuntua edo *garapen errealeko gunea* ezagutu eta egoera egokiak eskaintzea, hau, garapen hobereneko gunerantz aurreratu ahal izateko.

informazio burutua eta osatua eman behar, hipotesiak eraiki ditzan utzi behar die. Horretarako, material errealak erabiliko dira, haurrek testu idatziaren ezaugarriak, prozedurak eta funtzioak ezagutzeko. Horrez gain, garrantzitsua da ikasleei beren jakintzak aktiboki eraikitzen laguntzea, idazten eta irakurtzen ikastea hurbilpen-prozesu luzea baita (Fons, 2008: 160 or.).

Era berean, Fonsek (2008: 173-175 or.) aipatzen du modu konstruktibistaren arabera irakurriz ikasten dela irakurtzen eta idatziz ikasten dela idazten. Izan ere, irakurketa eta idazketa modu esanguratsuan garatzeko ezinbestekoa da ikasleak irakurketa eta idazketa erabiltzeko egoera errealean aurrean jartzea. Honekin lotuta, Ibarrek haurren esperimentazioari ematen dio garrantzia. Autore honek esaten duen moduan, haurrei hizkuntza idatziarekin esperimentatzen utzi behar zaie (Ibarra, 2009: 11 or.).

### 1.3. Haurraren garapena irakurketan eta idazketan.

Emilia Ferreirok eta Anna Teberoskyk (1999) haurraren irakurketa eta idazketa prozesuaren eraikuntza ikertu zuten. Ikerketa horiei esker konturatu ziren idazketa eta irakurketaren ikaskuntzaren prozesua unibertsala zela eta haurrek, orokorrean, ondoren aurkezten diren mailetatik igarotzen direla. Egile hauek idazketaren bilakaeran bost fase edo maila bereizten dituzte, hona hemen, fase horien laburpena.

FASEAK	EZAUGARRIAK
<b>IDAZTEA eta MARRAZTEA ez da gauza bera</b>	Grafismo primitiboak, zirriborroak, biribilak, makilatxoak, etab.
	Alineazio horizontala, ezker eskuin, letraren bat agertzen hasten da.
<b>BEREIZITAKO IDAZKETAK (IDEOGRAFIKO)</b>	Letren erabilera. Letra multzo jakin baten errepikapena esanahi desberdinekin.
	Letren konbinazioak esanahi desberdinekin. Izenaren letren konbinazio guztia idazteko.
<b>IDAZKETA SILABIKOA</b>	Lotura fonetikoa. Soinu bat (silaba) letra bat. Edozein letra.
	Silaba bakoitza bere bokalez adierazia.
	Silaba bakoitza bokal eta/edo kontsonantez adierazia.
<b>IDAZKETA SILABIKO-ALFABETIKOA</b>	Silaba bakoitza letra bat baino gehiagoz adierazia.
<b>IDAZKETA ALFABETIKOA</b>	Fonema/grafia oinarrizko lotura egina.

1. Taula: Idazketa faseak. (Saenz et alii, 2012: 39 or.)



Irakurketaren eboluzioan, Firthek hiru etapa bereizten ditu. Jarraian irakurketaren hiru faseen laburpena egile hori oinarri hartuz (Fons, 2008: 161 or.).

BILAKAERA	EZAUGARRIAK
IRAKURKETA LOGOGRAFIKOA	Marraskia eta testua desberdintzeko ezintasuna.
	Hitza irudi (logo) bezala ikusi.
IRAKURKETA ALFABETIKOA	Kontzientzia fonologikoa (fonemak).
	Letreiatzeko (deszifratzeko) gaitasuna.
IRAKURKETA ORTOGRAFIKOA	Testu idatziaren ulermen globala.

2. Taula: Irakurketa faseak. Norberak egina.

## 2. METODOLOGIA.

### 2.1. Testuingurua.

Sarreran aipatu den bezala, lan honen bidez Urtxintxa metodo berritzailea aztertu nahi da, idazketa eta irakurketa lantzeko proposatzen duen metodologia eta jarduerak ezagutzeko eta hauen erabilgarritasuna egiaztatzeko. Beraz, Urtxintxa metodoaren azterketa egiteaz gain, horren aplikazioa testuinguru mugatu batean aztertuko da, Betiko Ikastolako 5 urteko bi geletan hain zuzen ere. Horretarako, Urtxintxako 5 urteko irakaslearen gidaliburua aztertuko da, 5 urteko geletan behaketak egingo dira eta bi gela horietako irakasleei galdetegi bat egingo zaie.<sup>2</sup>

### 2.2. Ikerketa honek erantzun nahi dituen galderak.

Ikerketa honen bidez galdera hauek erantzun nahi ditut:

1. Zer motatako ariketak edo ekintzak proposatzen ditu Urtxintxa proiektuak idazketa eta irakurketa lantzeko 5 urteko gela batean?
2. Urtxintxa proiektuak irakurketa eta idazketa lantzeko proposatzen dituen jarduerak eta ekintzek eredu konstruktibistari jarraitzen diote?
3. Nola lantzen da hizkuntza idatzia Betiko Ikastolako 5 urteko gelan Urtxintxa metodoari jarraituz?
4. Nola erabiltzen da Urtxintxa proiektua, (euskarri moduan, beste metodo batzuekin batera, oinarri bezala...)?
5. Betiko Ikastolako 5 urteko geletan Urtxintxa proiektuan proposatzen diren ariketa, ekintza edo fitxa guztiak egiten dira? Zeintzuk lehenesten, baztertzen edo aukeratzen dira?
6. Betiko Ikastolako 5 urteko geletan haurren irakurketa eta idazketa autonomoa bultzatzen da? Nola?
7. Zein da irakaslearen rola hurrekin irakurketa eta idazketa lantzeko momentuan?

<sup>2</sup>Aukeratutako bi geletatik irakasle batek talde berarekin 3 urteko gelatik egon da, beraz, 3 urte daramatza haur talde berarekin eta oso ondo ezagutzen ditu, bestea, aldiz, luzerako den ordezkapen bat egiten ari da eta ez ditu haurrak ondo ezagutzen.

### 2.3. Helburuak.

Ikerketa honen bidez, helburu hauek lortu nahi ditut:

1. Urtxintxa proiektuan 5 urteko geletan irakurketa eta idazketa lantzeko proposatzen diren metodologia eta jarduerak eta hauen ezaugarriak zedarritzea.
2. Urtxintxa proiektua metodo berritzailetzat hartzen den heinean, ikuspegi konstruktibistaren oinarriak jarraitzen dituen egiaztatzea.
3. Ikastolen Elkarteko partaide den Betiko Ikastolako 5 urteko geletan, idazketa eta irakurketa lantzeko Urtxintxa proiektua nola erabiltzen den aztertzea.
4. Betiko Ikastolako 5 urteko geletan haurren irakurketa eta idazketa autonomoa bultzatzen den egiaztatzea.

### 2.4. Metodologia.

Ikerketa honen galderei eta helburuei erantzuna emateko ezinbestekoa da metodo egokia aukeratzea ikasgelako egoera errealean datu zehatzak jasotzeko eta datu hauek aztertzeko eta interpretatzeko. Kasu honetan, ikuspegi kualitatiboa lehenetsiko da ikerketaren datuak jasotzeko, aztertzeko eta interpretatzeko.

Ondoko taulan ikerketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren arteko desberdintasun nagusiak azaltzen dira.

	IKERKETA KUALITATIBOA	IKERKETA KUANTITATIBOA
<b>Jomugak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonak dituzten jokabideen azpiarrazoiak ulertzea.</li> <li>- Ikerketa kualitatiboak egiteko hipotesiak garatzea.</li> <li>- Arazoak ulertzea.</li> </ul>	Datuak kuantifikatzea eta laginean lortutako emaitzak populazio osora ondorioztatzea.
<b>Lagina</b>	Txikiak eta esanguratasun murriztekoak.	Handiak eta esanguratsuak.
<b>Informazio-bilketa</b>	Egitura gabea.	Egituratua.
<b>Informazioaren azterketa</b>	Ez-estatistikoa (Soziologian edo Psikologian erabilitako metodoak).	Estatistikoak.
<b>Erabilgarritasuna</b>	Egoera eta gertaerak ulertzea.	Ekintzak gomendatzea edo agintzea.

3. Taula: Ikerketa kualitatiboa eta kuantitatiboa. (Mesonero, 2005: 53 or.)

Mesonerok (2005: 53 or.) esaten duen moduan, “ikerketa kualitatiboa datuak lortzeko gutxi estrukturaturiko metodo bat da, lagin txikiekin egiten du lan eta jomugatzat du pertsonen barne-izaerari buruzko informazioa lortzea, hots, motibazioa, iritziak,

interesak...”. Horrez gain, pertsonen jarreraren inguruko informazioa ere lortu daiteke metodo honekin, behaketen edo galdetegien bidez, esate baterako.

#### 2.4.1. Lagina (kasuaren azalpena).

Ikerketa egiteko Ikastolen Elkartearen partaide den Betiko Ikastolako 5 urteko bi gelak aukeratu ditut. Betiko Ikastola gurasoen kooperatiba da eta Bizkaiko Leioa udalerrian kokatuta dago. Ikastola honek, 0 urtetik 16 urtera doan Hezkuntza Proiektua eskaintzen du, batez ere Leioa, Getxo eta Erandio Udalerrietara zuzendua. Bestalde, Leioa, nahiz eta bertan euskaraz ere hitz egiten den, udalerrri erdalduna da portzentaje handi batean, beraz, ikastola testuinguru erdaldunean kokatuta dagoela esan beharra dago.

Aukeratutako 5 urteko bi gelak D eredukoak dira. Horietako batean, 20 haur daude eta bestean 21. Irakurtzen eta idazten irakasteko metodologiari dagokionez, Betikon Haur Hezkuntzarako Ikastolen Elkartek sortutako Urtxintxa Proiektuarekin lan egiten da. Bestalde, Ikastolan ikuspuntu konstruktibistatik lan egiten da, hau da, ikaslea protagonista da bere ikaskuntza-prozesua eraikiz eta irakasleak prozesu horretan laguntzaile rola betetzen du.

Ondorengo taulan, aukeratutako bi taldeen ezaugarriak laburbiltzen dira:

	IKASLE KOPURUA	SEXUA		ETXEKO HIZKUNTZA		
		NESKA	MUTILAK	EUSKARA	GAZTELANIA	ELEBIDUNA <sup>3</sup>
<b>A</b>	20	10	10	7	5	8
<b>B</b>	21	10	11	13	-	8

4. Taula: 5 urteko gela ezaugarriak. Norberak egina.

#### 2.4.2. Datuen bilketa eta datuen analisirako irizpideak.

Ikerketa egiteko hiru datu mota jasoko dira:

##### 2.4.2.1. Urtxintxako 5 urteko irakaslearen gidaliburuaren azterketa.

Gidaliburua aztertzeke, Richardsek eta Rodgersek (1986) hezkuntza metodo baten deskribapena egiteko proposatzen dituzten puntuak jarraitu dira: Ikuspuntua, diseinua eta jardunbidea.

Richards eta Rodgers (1986: 23 or.) oinarri hartuz, ikuspuntuan metodoaren zertan datzan eta honen izaera azaltzen dira. Kasu honetan, Urtxintxa metodoa Haur

<sup>3</sup>Ikasle elebidun batzuen kasuan, besteetan ez bezala, bi hizkuntzak ez dira euskara eta gaztelania. A gelako haur baten etxean euskaraz eta poloniarrez hitz egiten da eta beste ume baten etxean euskaraz eta ingelesez, eta B gelako ume baten etxean euskaraz eta valentziarrez mintzatzen da eta bestearen etxean gaztelaniaz eta errusieraz.

Hezkuntzara zuzendutako metodo globala da eta ikuspegi berritzaile eta konstruktibista batetik diseinatuta dagoela esan daiteke. Diseinuari dagokionez, metodoaren helburuak, edukiak, jarduerak, eta ikasle, irakasle eta materialen funtzioa azaltzen dira. Jardunbidea atalean, bestalde, metodo zehatz bat erabiltzen denean, behatzen diren teknika zehatzak, praktikak eta jarrerak azaltzen dira.

Beraz, Urtxintxa metodoa aztertzeko Richardsek eta Rodgersek (1986) proposatzen duten eskema jarraituko da. Horrela, metodoaren deskribapena azalduko hiru puntuetan banatuko da.

#### 2.4.2.2. Idazketa eta irakurketaren inguruko behaketak ikasgelan.

Ikasgeletan irakurketa eta idazketaren lanketa zein haurren idazketa eta irakurketa autonomia behatuko da. Behaketa, Mesoneroren arabera (2005: 68 or.), gizabanako edo elementu-talde zehatz baten jarreraren eta ezaugarrien inguruko informazioa jasotzeko balio duen teknika da<sup>4</sup>. Beraz, behaketa informazioa eskuratzeko teknika den heinean, haurren irakurketa eta idazketaren inguruko datuak eta irakaslearen jarrera, irakurketa eta idazketa lanketari dagokionez, aztertzeko egingo dira, idazketa eta irakurketarekin zer ikusia zuen jarduera edo ekintzaren bat egiten dutenean.

Bestalde, Mesonerok (2005) proposatzen dituen behaketa motak kontuan hartuta, gelan egingo direnak behaketa ez-egituratuak izango dira, hau da, beharrak ez dira zehatz-mehatz definituta egongo. Horiek, giro naturalean egingo dira, gelan, gertaerak gertatzen diren heinean eta hurrek ez dute jakingo behatuak izango direla euren jokabidea ez baldintzatzeko.

#### 2.4.2.3. 5 urteko gelako irakasleentzako galdetegia.

Ikerketarako datuak eskuratzeko aukeratutako beste teknika bat galdetegia da. Hautatutako 5 urteko bi geletako irakasleei galdetegia egingo zaie gela horietan Urtxintxa Proiektuaren bidez idazketa eta irakurketa nola lantzen den ezagutzeko.

Mesoneroren (2005) arabera, galdeketa ikertzailearen eta aztertzen den talde edo pertsonaren artean gertatzen den komunikazio-prozesuaren oinarritzko atal bat da. Bere hitzetan, “Galdeketa da galdera-zerrenda baten bidez ikerketaren beharrezanean ahoz zein idatziz erantzuna emango dieten datuak biltzeko balio duen tresna egituratua”. Egile horrek esaten du galdetegia ez dela galdera-multzo soila, eta galdetegi batek egitura

---

<sup>4</sup>Tradizionalki, behaketaren helburua beste ikerketa-tekniken bidez lortutako informazioa osatzea eta aberastea izan da.

egokia behar duela, ordena eta formatu batekin. Gainera, galderek ikerketarako esanguratsuak eta aproposak izan behar dute. Horrez gain, Mesonerok (2005: 127 or.) hurrengo ere esaten du: “Galdeketa baten kalitatea, nagusiki proposatutako helburuen eta lortutako emaitzen arteko egokitzapen-mailaren bidez neurtzen da”.

Bestalde, Mesonerok (2005: 132-134 or.) erantzuteko askatasunaren arabera hiru galdera mota desberdintzen ditu: galdera irekiak, itxiak eta mistoak. Ikerketa honetan galdera irekiak egingo dira. Izan ere, galdetegiaren bidez ez dira datu zehatzak lortu nahi modu kuantitatiboan erabiltzeko, baizik eta, ahalik eta informazio gehien lortu. Hori dela eta, galderak irekiak izatea garrantzitsua da. Egile honen hitzetan, galdera irekiak “elkarrizketatuei erantzun posiblearik eman edo proposatzen ez dietenak dira” eta galdera itxiak, berriz, “erantzun posibleak eskaintzen dituzten galderak dira”. Gainera, aipatu beharra dago, galdetegia idatziz burutuko dela, irakasleei galdera sorta emanda, hauek nahi dutenean betetzeko eta bukatutakoan, irakasleekin galdetegiko galdera horien inguruko elkarrizketa bat egingo da. (Ikusi galdetegia 1. eranskinean.)

Irakasleei egingo zaien galdetegiaren bidez hurrengo ezagutu nahi da, besteak beste:

- Zer iritzi duten Urtxintxa metodoaren eta 5 urteko gidaliburuaren inguruan.
- Metodoa nola erabiltzen edo aplikatzen duten beren ikasgeletan.
- Horretan hizkuntza idatziaren irakaskuntzarako proposatzen diren metodologia, jarduerak eta materialak erabilgarriak direla uste duten.
- Gidaliburua irakasleentzat ulertzeko eta jarraitzeko erraza dela iruditzen zaien.
- Urtxintxa metodoak beren ikasleen hizkuntza idatziaren ikasketan laguntzen duen.

### **3. LANAREN GARAPENA.**

#### **3.1. Gidaliburuaren azterketa.**

##### *3.1.1. Ikuspuntua.*

Urtxintxa proiektua Haur Hezkuntzako etaparako diseinatutako metodoa da, haurraren gaitasun guztien garapena bultzatzeko eta euskalduntze-prozesua indartzeko helburua duena. Metodoaren ezaugarrietan azaltzen den moduan, haurraren izaera bere osotasunean hartzen duen proiektua da, Euskal Herri osorako egina eta diseinu bateratua eta eraginkorra duena (Saenz et alii, 2012: 7, 8 or.). Gainera, Urtxintxa ikuspegi globalizatzaile eta eraikitzaile batetik eratu da. Horrela azalduta dago 5 urteko gidaliburuan, irizpide metodologikoak atalean.

Ikuspegi globalizatzaileari dagokionez, Saenzek dio (2012: 14, 15 or.) haurren dimentsio guztiak lotuta daudela eta ezin direla modu isolatuan garatu. Hori dela eta, metodo honetan esperientzia-eremu guztiak batera garatzen dira interesgune baten inguruan. Honekin batera, hizkuntzaren (euskararen) trataera Urtxintxaren curriculumeko ardatz nagusietako bat da eta honi zehar-lerro trataera esplizitua ematen zaio. Bestalde, Urtxintxak haurren hizkuntza idatziaren ikaskuntzari hasiera ematen dio komunikazioa lehenetsiz eta hori haurren bizipen naturaletatik abiatuz, horrela bilatzen baitu hizkuntza idatziarekiko motibazioa eta jarrera baikorra (Saenz et alii, 2012:16 or). Ikuspegi eraikitzaileari dagokionez, Urtxintxa metodoak ikasketa esanguratsua eta funtzionala proposatzen du. Saenzen hitzetan (2012: 16 or.), “Jarduerak ez dira era isolatuan eta testuingurutik kanpo aurkezten, haurrak zentzuzko hari bati jarraituz baizik.”. Ikasketa esanguratsua lortzeko, haurren interesak kontuan hartzen dira, eta jolasari eta jardueren izaera ludikoari ematen zaio garrantzia. Horrez gain, Urtxintxaren helburu nagusietako bat jarduera mental etengabea eta trinkoa sustatzea da, haurren ikasketaren eraikuntza autonomoa bultzatuz. Haurren garapen-eremu hurbila bilatuz eta bertan eraginez, haurra gatazka kognitiboen aurrean jartzen dute.

### 3.1.2. Diseinua.

#### 3.1.2.1. Helburuak.

Saenzen arabera (2012: 59 or.), Urtxintxa proiektuaren helburuek gida funtzioa hartzen dute, bai praktika pedagogikorako, eta bai ebaluaziorako. Gainera, edukien eta jardueren hautaketa horietan oinarritzen da. Metodoan, helburuak hiru mailatan banatuta adierazten dira, egile honek esan duen moduan, “orokorrenetatik hasita, operatibo eta behagarrienetara”. Edukiaren aldetik, helburuak adierazteko erabiltzen diren aditzak, zehatzak (konkretuak) dira eta aktiboak dira kasu gehienetan. Helburuen behaketa eta ebaluazioa ahalbidetzen duten aditzak dira: identifikatzea, erabiltzea, kodetzea-deskodetzea etab. Gainera, helburu didaktikoetan, hauek, maiuskulaz agertzen dira hobeto identifikatzeko.

Jarraian hizkuntza idatziarekin, gure aztergaiarekin, lotura dituzten helburuetatik adierazgarrienak direnak azaltzen dira (Saenz et alii, 2011: 59-76 or.):

#### **a) Etapako helburu orokorrak.**

- Euskarari zein beste zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatu.

- Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hasteko, eta mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hasteko, inguruan duen mundua ulertu eta interpretatu.

**b) Eremuetako helburu orokorra. Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena.**

- Beste kultura-tradizio batzuetako zenbait literatura-testu ulertzea, ozen irakurtzea, kontatzea eta berregitea, haiekiko interesa izateko, balioesteko eta haietaz gozatzeko.
- Hizkuntza idatziaren gizarteko erabilerak ezagutzen hastea, hizkuntza idatziaren funtzionamendua aztertzeke, eta komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko tresna gisa balioesteko.
- Teknologiako tresnak erabiltzen hastea, eta tresna horiek komunikatzen duten gaitasuna aintzat hartzea, arian-arian informazio- eta ikaskuntza-iturri gisa erabiltzeko.

**c) Eremuetako helburu didaktikoak. Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena.<sup>5</sup>**

- Hizkuntza sentimendua, ideiak, interesak eta informazioa ezagutzeko tresnatzat hartzeko eta balioesteko, ahozko eta idatzizko testuak (pertsonek arteko harremanetan, literaturan, ikaskuntzak eta komunikabideetan) BALIATZEA.
- Norberaren hizkuntza-produkzioak hobetzeko eta aberasteko interesa eta ahalegina garatzeko, oinarriko hizkuntzaren osagaiak eta egiturak (testu sinplea, esaldiak, hitzak, silabak, fonemak eta grafiak) BEHATZEA eta AZTERTZEA.
- Jakin-mina eta ekimena garatzeko, kode fonikoa eta grafikoa ERLAZIONATZEA (KODETZEA-DESKODETZEA).
- Sormena eta ekimena garatzeko eta gozatzeko, ahozko eta idatzizko testuak EKOIZTEA.

3.1.2.2. Programa eredu eta jardura motak.

Hizkuntzen trataera atalean adierazten den bezala, irakurketa eta idazketa modu funtzionalean eta esanguratsuan lantzekotan, haurrak apurka-apurka testu idatziak ezaugarriak ezagutzen joango dira (Saenz et alii, 2012: 33 or.). Urtxintxa metodoan hizkuntza lantzeko proposamena hiru eremutan banatzen da: (Saenz et alii, 2012: 34-37 or.).

---

<sup>5</sup>Unitate guztietan agertzen diren jardura pedagogiko bakoitzean, lantzen diren helburu didaktikoak adierazten dira, dagokion identifikazio-zenbakiarekin.

**a) Gelako eguneroko bizitza.** Metodo honetan adierazten den moduan, hizkuntza zeharkako moduan edozein momentutan lantzen da. Alde batetik, eguneroko errutinen bidez lantzen da, menua idazterakoan, data idaztean, irakurtzerakoan eta abarretan. Bestetik, unitateetan lantzen diren jarduera guztietan ere, hizkuntza landu egiten da.

**b) Taldeko elkarrizketa.** Urtxintxa proiektuak garrantzia handia ematen dio taldeko elkarrizketari.

**c) Literatura.** Literatura da, Urtxintxak, hizkuntza lantzeko proposatzen duen beste baliabide bat. Gidan, bi baliabide bereizten dira literaturaren barruan: ipuina eta poesia.

- Ipuina: Urtxintxak ipuina modu eraikitzailean lantzea proposatzen du, horrela, haurrek ez dute ipuina modu pasiboan entzungo, baizik eta honetan parte hartuz. Ipuinarekin batera proposatzen diren jardueren artean taldeko antzerkia dago, horrela, egile honen arabera, “ipuina “entzun” beharrean, hura “bizitzeko” aukera ematen zaio ikasleari.” (Saenz et alii, 2012: 36 or.).
- Poesia: Urtxintxa metodoan poesiari garrantzia handia ematen zaio. Horretan, poesiaren inguruko jarduera desberdinak proposatzen dira, hizkuntza orokorrean eta hizkuntza idatzia lantzeko erabilgarriak direnak: bertsoak, olerkiak, kantu desberdinak (herrikoiak, berriak, jolas-kantuak) eta igarkizunak.

Jarduera motei dagokienez, irakurketa eta idazketa lantzeko egoera eta jarduera desberdinak proposatzen ditu Urtxintxa metodoak (Saenz et alii, 2012: 40 or.). Hona hemen komunikazio idatzira bideratzen dituen egoeren artean lehenesten direnak eta bakoitzeko hainbat adibide:

- Gelako antolaketa: ardurak banatu, oharrak idatzi, arauak adostu.
- Eguneroko ekintzak: menuaren berri izan, etxerako mezuak bidali, egutegia eguneratu.
- Ipuin kontaketa/hizkuntza poetikoak: izenburuak “irakurri”, abestiak/olerkiak ikasi, ipuina entzun/”irakurri”.
- Testu-bildumak: abestiak eta olerkiak “irakurri” eta ikasi, informazio-txartelak egin.
- Gaien ingurukoak: gutunak bidali, bildumak eratu, jarduerak egin zenbakiekin.

Horrez gain, Urtxintxak testu mota anitzen lanketa proposatzen du. Horiek guztiak antolatzeko (Saenz et alii, 2012: 41, 42 or.) honako sailkapen hau proposatzen du:



- Zerrendatzea: nor bere izena identifikatzea eta idaztea eta kartel bat irakurtzea.
- Informazioa: berri bat idaztea eta ikasleek irakasleari ohar bat diktatzea.
- Literatura: komikiak behatzea eta idaztea, hutsuneak dituen literatur testu bat osatzea eta ipuin ezagun baten izenburua irakurtzea.
- Azalpena: gelako hiztegia osatzea eta ideia nagusiak identifikatzea.
- Preskripzioa: errezeta baten osagaiak idaztea, jolas baten arauak irakurtzea.

Bestalde, badira unitateetan zehar errepikatzen diren jarduerak. Horien artean, hizkuntza idatzia lantzekoak daude: igarkizunak, olerkiak, abestiak, komikia, gutunak, esaera zaharrak, hiztegia, memoria-jolasak beste batzuen artean. (Saenz et alii, 2012: 43 or.).

### 3.1.2.3. Ikaslearen, irakaslearen eta materialen funtzioa.

Irakasle, ikasle eta materialen funtzioa metodoaren izaera eraikitzailearekin eta globalizatzailearekin bat datoz. Irakasleak haurren ikasketa esanguratsua, jakintzaren eraikuntza autonomia eta kogniziozko jarduera etengabea eta trinkoa bultzatu behar ditu. Ikaslea, beraz, horrela jokaturik bere ikasketaren protagonista izango da beti, jarrera guztiz aktiboa izango baitu. Materialei dagokienez, ikasleek ikasketa esanguratsua eta aktiboa ahalbidetzeko diseinatuta daude. (Saenz et alii, 2012: 16-17 or.).

Bestalde, ikuspegi eraikitzaileari lotuta, Urtxintxak fitxen planteamendu berritzailea proposatzen du. Saenzen hitzetan (2012: 17 or.), “Urtxintxa proiektuko fitxak ez dira haurrak zer egiten dakien demostratzeko sortu”; aitzitik, aurrerago zehazten duenez, “haurra pentsatzen jartzera, jarduera mentala sustatzera eta jarrera aktiboa bideratzera zuzenduta dauden proposamenak dira”. Horrela, garrantzia handiagoa ematen zaio prozesuari emaitzari baino. Horrez gain, taldean lan egiteari eta lankidetzari ere garrantzia berezia ematen zaio.

### 3.1.3. *Jardunbidea:*

Unitateei erreparatuz, metodoan proposatzen diren jarduera konstanteak agertzen direla konprobatu da. Batzuk behin baino gehiagotan agertzen dira unitate bakoitzean. Hauek dira gehien proposatzen diren jarduerak hizkuntza idatzia lantzeko:

**a) Igarkizunak, olerkiak eta esaera zaharrak.** Unitate guztietan agertzen dira behin baino gehiagotan. Gehienak Juan Kruz Igerabide eta Joxean Ormazabal idazle

euskaldunenak dira. Testu oso laburrak dira eta gaiarekin lotuta daude beti. Prozeduran, batzuetan, horiek lantzeko proposamena agertzen da, beste batzuetan, sarrera txiki bat eta besteetan, igarkizunak, olerkiak edo esaera zaharrak besterik ez. Gehienetan, testu horiek irakasleak irakur ditzan proposatzen dute, eta haurrek asmatu ostean, errepikapenaren bitartez ikastea. Batzuetan, irakasleak arbelean idaztea proposatzen da haurrek irakurtzeko, edo haurrek idazteko.

**b) Ipuina.** Ipuinaren inguruan jarduera desberdinak proposatzen ditu Urtxintxa metodoak, hizkuntza idatziarekin zer ikusia dutenak: irakaslearen ipuin-kontaketa, komikia, haurren ipuin-kontaketa, liburuko ipuina irakurtzeari etab. Jarduera horiek unitate guztietan errepikatzen dira. Lehenik eta behin, irakasleak ipuina euskarririk gabe kontatzea proposatzen da, haurrek sormena garatzeko eta jarraian ipuina irudikatzeko. Unitate guztietan 7. eta 9. unitateetan izan ezik, komikia egitea proposatzen da. Horretarako, lehenengo talde handian ikusten diren eszenak gogoratzea gomendatzen du metodoak. Honen helburua da haurrek ipuinaren kontaketa egitea. Haurrek ipuin-kontaketa egiteko hezitzaileak laguntza behar duela esatea proposatzen da eta denon artean ipuina kontatzea, laminaz-lamina. Azkenik, haurrek ipuina liburuan irakurtzea ere proposatzen du metodoak. Azkenengo jarduera hau, 1. unitatean baino ez da aipatzen, baina jarduera konstanteetan agertzen da. Jarduera honen helburua da haurrak liburuarekin harremanetan jartzea. Azkenik, irakasleak ipuina irakurtzea eta haurrek jarraitzen saiatzea proposatzen da.

**c) Gutuna.** *Xangoren gutunak* unitate guztietan agertzen dira, horiei sarrera emateko eta jarduera edo ekintza batzuk aurkezteko. Horiek, irakasleak irakurtzeko gutunak dira. Haurrek, gurasoentzako gutunak idaztea ere proposatzen da unitateetan zehar, adibidez, ekintzaren bat egiteko materiala eskatzeko edo antzerkiak ikustera gonbidatzeko.

### 3.2. 5 urteko gelan egindako behaketen azterketa.

Behaketa egin dira hiru hilabetetan zehar, haurrak ikasgelan egon diren bitartean. Horiek, momentu desberdinetan egin dira:

- Goizeko errutinetan hizkuntza idatziarekin lotura duten ekintzak behatu dira.
- Urtxintxako lan koadernoko fitxaren bat egitean haurren eta irakasleen jarrera behatu da.
- Haurrak jolas librean egon direnean irakurketa edo idazketa egin dutenean behaketak egin dira.

Izan ere, hizkuntza idatzia momenturo lantzen da, beraz, behaketa etengabekoa eta planifikatu gabekoa izan da. Behatutakoa jasotzeko koaderno bat erabili da eta bertan, oharrak jaso dira txantilo baten bidez aukera posible batzuk aurreikusiz. (Ikusi 2. eranskina.)

Bestalde, metodologia atalean azaltzen den moduan, hainbat egoera behatu nahi ziren, eta hauek izan dira behaketa horiek ikerketa honetan adierazteko bost puntu nagusiak:

- Egunerokotasunean idazketa eta irakurketaren inguruan egiten diren jarduerak.
- Hurrek irakurketarako eta idazketarako duten autonomia.
- Hurrek idazketa eta irakurketa noiz egiten duten. Irakasleak ariketa bat proposatzen duenean bakarrik edo denbora librean ere egiten duten.
- Irakaslearen rola irakurketa edo idazketa lantzerako orduan.
- Urtxintxa Proiektuaren erabilera, irakurketa eta idazketari dagokionez.

### **3.3. Galdetegiaren azterketa.**

Esan bezala, Betiko Ikastolako 5 urteko bi geletako irakasleei galdetegia egin zaie haien Urtxintxa metodoaren interpretazioa zein den eta haien geletan irakurketa eta idazketa nola lantzen den ezagutzeko eta behatutakoarekin konparatzeko eta osatzeko asmoarekin. Galdetegia irakasleei paperez eman zaie, haiek ahal zuten momentuan betetzen joateko eta horrela, erantzun garatuagoa lortzeko asmoarekin. Izan ere, galdetegia zuzenean eta ahoz egitekotan, irakasleek ez zuten denbora asko izango erantzuteko eta segur aski erantzuna pobreagoa izango litzateke. Horrez gain, arrazoi honengatik, galdera irekiak egitea erabaki da<sup>6</sup>. Bestalde, galdetegiak osatzeko irakasleekin elkarriketa bat egitea pentsatuta neukan, baina hori, modu informalean egin da eta gutxi garatutako galderekin bakarrik, hauek osatzeko helburuarekin. Gainera, practicumak iraun duen hiru hilabeteetan egindako galdera guztiak galdetegia osatzeko beharrezko informazioa lortu dut.

## **4. EMAITZAK.**

### **4.1. Gidaliburuaren azterketaren emaitzak.**

Irakaslearen gidiliburuaren lau ataletan banatuta dago: atarikoak, bigarren zehaztapen maila, hirugarren zehaztapen maila eta material osagarria. Lehenengo biak

---

<sup>6</sup>Metodologian aipatzen den bezala, galdetegiaren bidez ez da datu zehatzik lortu nahi izan, baizik eta ahalik eta informazio eta datu gehien jaso.

gidaliburuaren sarrera dira, eta bertan Urtxintxa metodoaren ezaugarriak, irizpide metodologikoak eta helburuak azaltzen dira. Hirugarren atalean, unitateak banan banan azaltzen dira eta laugarrenean, unitate bakoitzean erabiltzeko material osagarria dago.

Hona hemen 5 urteko irakaslearen gidaliburuaren azterketaren emaitzak:

a)Urtxintxa gidaliburuan hizkuntza idatzia zeharkako moduan lantzen da etengabe eta gidan proposatzen diren jarduera desberdinekin. Hau da, ez da hizkuntza idatzia beren-beregi lantzen, gidaliburuak ez du aparteko unitaterik proposatzen hori lantzeko. Jarraian azaltzen den jarduera Olentzerori gutuna idaztean datza. Hori, haurrarentzat esanguratsua izateaz gain, helburu zehatz bat du: Olentzerori opariak eskatzea, beraz, hizkuntza idatziaren erabilera funtzionala egiten da, eta ez da idazten idazteagatik:

### 33. OLENTZERORI GUTUNA IDATZI

**Helburu didaktikoak:** III.6 (H)-7 (H)-8 (H)-9 (H)-11 (H)-12 (H)  
**Etengabeko ebaluazioa:** ADIERAZPENA  
**Gaitasun motak:** KOMUNIKATIBOAK  
**Jarduera motak:** APLIKAZIOA  
**Taldekatzea:** TH/B  
**Materiala:** IKASLEAREN LAN KOADERNOKO 9. FITXA  
**Jarduera egiteko espazioa:** ADIERAZPEN PLASTIKORAKO TXOKOA



#### PROZEDURA


Mari Domingik banatutako gutun-orriak emango dizkiegu, eta nola, zer eta non idatzi behar duten planifikatuko dugu. Ondoren, nor bere gutuna idatziko du, bere erara.

Eskola eta herri bakoitzean ohitura desberdinak daudenez, zuek erabaki beharko duzue zer egin gutun hauekin: Olentzero ikastolara datorrenean eskura eman, postaz bidali, herriko Olentzerori edo Bizar Zuriri eman...

b) Gidaliburuak, mota desberdinetako jarduerak proposatzen ditu, batzuk itxiak, emaitza bakarra onartzen dutenak, eta beste batzuk irekiak, haurrak sormena garatzea ahalbidetzen dutenak. Jarraian, jarduera itxien eta irekien adibide bana: lehenengoa bertso bat da, jarduera itxia, zeinetan erantzun posible bakarra dago; bigarrena aldiz, unitatearen balorazioa da, jarduera irekia, zeinetan haur bakoitzak gehien gustatu zaiona eta zailena iruditu zaiona idatzi behar duen:

### 52. Bertsoan jolasean

**Helburu didaktikoak:** I.12-13, II.9, III.5(H)-7(H)-8(H)-9(H)-13(H)-15(H)  
**Etengabeko ebaluazioa:** ADIERAZPENA, NORTASUNA  
**Gaitasun motak:** KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK  
**Jarduera mota:** ESPERIMENTAZIOA, MOTIBAZIOA  
**Taldekatzea:** TH  
**Materiala:** IKASLEAREN LAN KOADERNOKO 10. FITXA  
**Jarduera egiteko espazioa:** HARRERA TXOKOA



Bertsoa letra larriz idatzi eta fotokopia dezakezue, osatuta nahiz osatu gabe. Eta haurrei eman adreilu bakoitza dagokion tokian jartzeko. Arbelean letra mota bietan idatzi adreiluak. Taldearen arabera, *tortillak* eta *galletak* hitzak ken ditzakezue.

## 59. Balorazioa

**Helburu didaktikoak:** BALORAZIOA  
**Etengabeko ebaluazioa:** ULERMENA  
**Gaitasun motak:** KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK  
**Jarduera mota:** ESPERIMENTAZIOA  
**Taldekatzea:** B  
**Materiala:** IKASLEAREN LAN KOADERNOKO 14. FITXA  
**Jarduera egiteko espazioa:** ADIERAZPEN PLASTOIKORAKO TXOKOA




Fitxa honen bitartez, proiektuari buruzko inpresio orokorra jaso nahi da.  
 Talde handian fitxa aztertu eta irakurri ondoren, haur bakoitzak bere fitxa beteko du.

c) 5 urteko irakaslearen gidaliburuan agertzen diren jarduera guztiak hizkuntza idatzia lantzekoak dira, eta ez kaligrafia soila. Ez da aurkitu kaligrafia espezifikoki lantzeko jarduerarik.

d) Aztertutakoaren arabera, Urtxintxa gidaliburuak jarduerak edota ekintzak egiteko modu bakarra proposatzen du gehienetan, beraz, egokitzapenak irakaslearen esku geratzen dira.

e) Urtxintxako 5 urteko irakaslearen gidaliburuak testu mota desberdinen lanketa proposatzen du: zerrendak, informazio testuak, testu literarioak (olerkiak, igarkizunak, ipuinak...), azalpen testuak eta preskripzio testuak. Informazio testuak eta testu literarioak sistematikoki agertzen dira unitate guztietan. Bestalde, ez da topatu ez egunkari artikulurik, ez iritzi artikulurik lantzeko proposamenik.

f) Irakurketa eta idazketa lantzeko jarduera mota desberdinak proposatzen dira, eta horietako batzuek unitate guztietan behin baino gehiagotan errepikatzen dira, igarkizunak eta olerkiak besteak beste. Horrez gain, unitate bakoitzari ipuin bat dagokio eta horren inguruko jarduera desberdinak proposatzen dira gidaliburuan: irakaslearen/haurraren ipuin-kontakteta, komikia, ipuinaren irakurketa liburuan esate baterako. Bestalde, unitate guztietan zehar Xango, 5 urteko pertsonai gidariaren gutunak agertzen dira eta gainera, haurrek gutunak idazteko proposamenak egiten dira. (Ikusi grafikoa.)



1. Grafikoa: Jarduera errepikakorren maiztasuna. Norberak egina.


#### 4.2. 5 urteko gelan egindako behaketen emaitzak.

a) Egunerokotasunean idazketa eta irakurketaren inguruan egiten diren jarduerak.

- Irakurketa eta idazketa uneoro lantzen dira 5 urteko gela bietan.
- 5 urteko bi geletan, hizkuntza idatzia egunerokotasunean integratuta dago. Hori zeharkako modu batean edo jarduera espezifikorik egin gabe lantzen da.
- Bi geletako hurrek une desberdinetan idazten eta irakurtzen dute. Jolas librean marrazkiak egiten dituztenean, askok, izena idazteaz gain beste zerbait idazteko ohitura daukate, edo boloetan aritzen direnean, adibidez, puntuazioak idazten dituzte arbelean. Eguneroko ardura egiten dutenean, menua idazten dute, egutegia irakurri eta interpretatzen dute besteak beste. Horrez gain, fitxaren bat egiten dutenean, gehienetan, zerbait idatzi eta irakurri beharra dago, gainera, fitxa guztietan izena eta data idazten dituzte.

b) Hurrek irakurketarako eta idazketarako duten autonomia eta maila.

- 5 urteko bi gelak konparatuz, A gelako umeek B gelako umeek baino irakurketa eta idazketa maila altuagoa daukate.
- Idazketa mailari dagokionez, hori, behaketen bidez konprobatu ahal izan da, baita esaldi baten diktaketa<sup>7</sup> hurrei banan-banan eginez. (Ikusi 3. eranskina.) Esan daiteke A gelako ume gehienak 5. fasean, alfabetikoan, daudela eta B gelako haur gehienek, aldiz, 4. fasean, silabikoan.



2. Grafikoa: Ikasleen idazketa maila. Norberak egina.

- Hurrek autonomia handia daukate idazteko eta irakurtzeko orduan, askotan egiten dute euren denbora librean.
- Noizean behin, idazterakoan ortografia arauengatik galdetzen dute. Adibidez, “s” ala “z”-rekin idazten den, edo hitzen batek “h”-rik daukan esate baterako. Irakurtzerakoan, batzuetan, hurbiltzen dira eta hitz bat nola ahoskatzen den galdetzen dute. Baina, jarduera hori gutxiagotan gertatzen da.

<sup>7</sup>Hurrei, idazketa froga, banan-banan egin zaie hurrengo igarkizuna aitzakiatzat hartuz: “Eguzkia eta euria, Erromako zubia”. Igarkizuna asmatu ostean (ostadarra), hurrei, hori idazteko eskatu zaie. Hurrek, ez dute alde zuzenik esaldia idatzita ikusi.

c) Hurrek idazketa eta irakurketa noiz egiten duten, irakasleak ariketa bat proposatzen duenean bakarrik edo denbora librean daudenean ere bai.

- Haur guztiek lan-koadernoan fitxaren bat egiten dutenean edo irakasleak jarduera edo ekintza bat proposatzen dienean irakurtzen eta idazten dute.
- Haur batzuek euren denbora librean ere idazten eta irakurtzen dute: liburutegi txokora joaten dira irakurtzera, marrazkietan idazten dute, unitatearen hiztegi txartelak irakurtzen dituzte, boloetara edo urkatuta jolasten direnean idazten dute etab.

d) Irakaslearen rola irakurketa edo idazketa lantzerako orduan.

- Bi geletako irakasleek antzera jokatzeko irakurketa eta idazketa lantzerakoan. Hurrei bere modura irakurtzen eta idazten uzten diete, oztopatu gabe. Noizean behin, haurren maila kontuan hartuta, txarto idatzi edo irakurtzekotan zuzendu egiten dute haurrekin batera.
- Idazketaren kasuan, modu zuzenean idazteari baino, txukun eta garbi idazteari ematen diete garrantzia. Haurren produkzioak begiratzeko orduan, ondo ulertzen ez bada, haiei zer idatzi duten kontatzeko eskatzen diete eta batzuetan ondoan idazten dute gurasoek ere ulertzeko.
- Irakurketaren kasuan, haurrak irakurtzera animatzen dituzte. Irakasleek aurreratu eta irakurri beharrean hurrei irakurtzeko eskatzen diete eta haurren batek ez badaki, beste bati galdetzen diote.

e) Urtxintxa Proiektuaren erabilera, irakurketa eta idazketari dagokionez.

- Urtxintxa metodoarekin irakurketa eta idazketa ez dira lantzen fitxen bidez bakarrik, errutinetan ere idazketa eta irakurketa lantzen da zeharkako modu batez.
- Urtxintxa metodoak ez du idazketa eta irakurketa modu isolatuan lantzeko fitxarik edo jarduerarik prestatzen, zeharkako moduan lantzen baitira. Esan bezala, metodo globala da eta hori irakurketaren eta idazketaren lanketan ere islatzen da.

### 4.3. Galdetegiaren emaitzak.

Bi irakasleei egindako galdetegiak aztertu eta konparatu dira eta irakasle biek bat datozen erantzunak laburbildu dira. Hona hemen galdetegiaren laburpena:

a) Urtxintxa proiektua.

- Urtxintxa proiektuak osotasunean hartzen du haurra, erritmo eta garapen desberdinak kontuan hartuz. Gainera bera izaten da bere ikasketen protagonista
- Globala da, hau da, arloak ez dira modu isolatuan lantzen. Bestalde, metodo gidatua da. Hala ere, gidaliburuan, batzuetan, jarduerak egiteko proposamen desberdinak agertzen dira. Baina, gehienetan, irakaslearen eskuetan geratzen da hori moldatzea.
- Irakaslearen gidaliburuan zehaztasun handiz azaltzen dira gai bakoitzean irakasleak eta ikasleek zer egingo duten, behar duten informazioa emanez.

b) Urtxintxa metodoaren irakurketa-idazketaren irakaskuntza.

- Urtxintxaren helburuetako bat, haurrek hizkuntza idatziarengatik interesa izatea da. Haurraren garapena, interesak eta heldutasun maila kontuan hartuta proposamen anitz egiten ditu haurrak irakurtzen eta idazten has daitezen.
- Metodo honekin, irakurketa eta idazketa ikuspegi konstruktibista batetik lantzen dira, haurraren garapena eta erritmoa kontuan hartuz eta haurra protagonista eginez. Hizkuntza idatzia modu globalean lantzen da egunerokotasunean.
- Metodo honekin, irakurketa eta idazketa modu jarraian eta eraikitzailean lantzen dira.

c) Material, jarduera eta ekintza moteak.

- Urtxintxak proposatzen dituen jarduera gehienetan, nahiz eta zeharkako lerroan izan, irakurketa eta idazketa lantzen dira.
- Gidaliburuan proposatzen diren ariketa guztiak egiten diren galdetzean, irakasleak ez dira bat etorri. Batek, ezetz erantzun du, unitate didaktiko bakoitzean ekintza asko proposatzen direlako, eta besteak, gehienetan baietz esan du, nahiz eta batzuetan jardueraren bat ez egitea erabaki.
- Irakurketa eta idazketa lantzeko Urtxintxak proposatzen dituen jardueraz gain, kontzientzia fonologikoa eta hizkiak lantzeko fitxak egiten dituzte. Egunerokotasunean, data, menua, egutegia etab. lantzen dute.

d) Irakaslearen rola.

- Idazketa eta irakurketa lantzeko orduan haurrak zein fasetan dauden kontuan hartzen dute, eta haurren produkzioak errespetuz tratatzen dituzte. Irakasle batek haur guztiak zoriontzen dituela erantzun du, besteak, berriz, zorionak eman beharrean, motibatzen dituela.



- Gelan momentu oro lantzen da irakurketa eta idazketa eta hori sustatzeko, haien interesak kontuan hartzen dituzte eta, batzuetan jolasaren bidez haurrak erakartzen dituzte.
- Emaitzari baino, idaztearen edo irakurtzearen ekintzari ematen diote garrantzia irakasleek. Hala ere, irakasle batek, nahiz eta prozesuari garrantzia eman, batzuetan ondo/gaizki epaitze horretan sartzen dela esan du.

e) Ikasleen zeregina.

- Haurrak protagonistak dira irakurketa eta idazketaren ikasketan, haientzat esanguratsuak diren ekintzak egiten dituzte. Egun bakoitzean bat da arduraduna, eta horrek hizkuntza idatziari lotutako ekintza desberdinak burutzen ditu: data eta menua idatzi, egutegia osatu, emozioen egunerokoa<sup>8</sup> egin besteak beste.
- Hurrek momentu askotan lantzen dute irakurketa eta idazketa, bai denbora librea dutenean, bai ekintza jakin bat egitean. Hau da, batzuetan gidatua izaten da, beste batzuetan gonbidatzen zaie egitera eta, beste askotan, bere kabuz egiten dute.
- A gelako hurrek hizkuntza idatziarekiko jakin-mina erakusten dute. Gehienek fase alfabetikoan daude. B gelako irakasleak, berriz, ez daki hurren bilakaera zein izan den, ordezeko irakaslea baita, baina gela honetako haur gehienak fase silabikoan daude eta gutxi batzuk ez dute interesik erakusten. Bestalde, biek bat datoz metodologiak eragina izan duenarekin.

## 5. ONDORIOAK.

Urtxintxa metodoaren bidez hizkuntza idatzia nola irakasten den aztertu ondoren, hurrengo ondorioetara heldu naiz:

- Urtxintxa ikuspegi globalizatzaile eta eraikitzailetik diseinatutako metodoa da.
- Urtxintxa metodoak hizkuntza idatzia modu globalean lantzeko proposamen garatua eskaintzen die Haur Hezkuntzako irakasleei.
- Urtxintxa metodoaren izaera eraikitzailea egiaztatu da. Gidaliburuan hizkuntza idatzia lantzeko proposatzen diren jarduerak haurarentzat esanguratsua den gai bati lotuta daude; horiek egunerokotasunean integratuta daude eta izaera ludikoa

---

<sup>8</sup>Ikasle guztiek eguneroko bat daukate, zeinetan beren sentimenduak adierazten dituzte marrazki baten bidez. Horretarako triste, beldurtuta, haserre eta pozik sentimenduen fitxak dituzte. Hurrek, nahi duten momentuan, sentitzen dutenaren araberrako fitxa hartu eta bertan irudia egiten dute. Jarraian, irakasleak haurren azalpena idazten du atzealdean. Fitxa hauek batuz, sentimenduen egunerokoa osatzen da.

eta funtzionala dute. Gainera, haurren interesetatik abiatzen dira eta bere parte-hartze aktiboa sustatzen dute.

- Urtxintxako 5 urteko irakaslearen gidaliburuak jarduerak eta ekintzak modu argian eta zehatzean azaltzen ditu.
- Gida nahiko zuzendua dela esan daiteke, irakasleentzat jarraitzeko erraza. Hala ere, jardueren aukeraketa eta horien moldapena irakaslearen esku geratzen da, eta horrek, lana suposatzen du.
- Proposatzen diren jarduera askok esperimenezkoaren eta esperientzien bidezko ikaskuntza ahalbidetzen dute.
- Bestetik, metodoak komunikazio idatzira bideratzen duten egoera eta jarduera desberdinak proposatzen ditu.
- Urtxintxa metodoak fitxen planteamendu *berritzailea* proposatzen du. Fitxek haurrek zer dakiten demostratzeko helburua izan beharrian, pentsarazteko eta horien jarrera aktiboa sustatzeko helburua dute.

Bukatzeko, aipatu beharra dago, ikerketa honekin erantzun nahi ziren galderari erantzuna topatu zaiela, baita ezarritako helburuak bete ere. Azkenengo horiei dagokienez, Urtxintxa metodoak 5 urteko geletan hizkuntza idatzia lantzeko proposatzen dituen metodologia eta jarduerak eta hauen ezaugarriak aztertu dira eta ikuspegi eraikitzailearen oinarriak jarraitzen dituela konprobatu da. Horrez gain, Urtxintxaren aplikazioa testuinguru erreal batean behatu eta aztertu da eta bertan, haurren irakurketa eta idazketa autonomoa nola bultzatzen den ezagutu da.

## 6. AZKENENGO HAUSNARKETA.

Ikerketa honekin Urtxintxa metodoa gehiago ezagutzeko aukera izan dut, eta horren bidez hizkuntza idatzia modu eraikitzaile eta globalizatu batean nola lantzen den ikusi dut testuinguru erreal batean. Hala ere, Urtxintxa proiektua, nahiz eta gida nahiko zuzendua izan, irakasle bakoitzak bere erara interpretatzen duela badakit, eta Betiko Ikastolan metodoa modu batean erabiltzen dutela eta beste ikastetxe batzuetan, metodo berari jarraituz beste modu batzuetan irakatsi dezaketela. Honekin esan nahi dut, Betiko Ikastolako Urtxintxa metodoa aplikatzeko eredu bat baino ez dela izan. Hiru hilabeteko behaketa gidaliburuan aztertutakoa errealitatean ikusteko aukera oso erabilgarria izan da ikerketarako. Horrela, ikerketa ez da esparru teorikoan bakarrik geratu, hau da, gidaliburuaren azterketan. Urtxintxa metodoa testuinguru erreal batean nola aplikatzen

den ikusteak aukera eskaini dit gidan proposatzen diren jarduerak praktikara nola eramaten diren ikusteko, eta horrela, hauek hobeto ulertzeko aukera izan dut. Nire uste apalean, teoriari zuzeneko esperimentazioa eta behaketa gehitzen badiozu, informazio osatuagoa lortzen duzu.

## 7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Díez de Ulzurrun, A. (2005). *El aprendizaje de la lectoescritura desde una perspectiva constructivista. Vol I.* Barcelona: Graó.
- Ferreiro, E. & Teberosky, A. (1999). *Los sistemas de escritura en el desarrollo del niño.* Mexiko: Siglo XXI.
- Fons, M. (2004). *Leer y escribir para vivir: alfabetización inicial y uso real de la lengua escrita en el aula.* Barcelona: Graó.
- Fons, M. (2008). Aprender a leer y a escribir. In: Bigas, M. & Correig, M. (Ed), *Didáctica de la lengua en la educación infantil.* (157-160, 173-175). Madrid: Síntesis.
- Ibarra, I. (2009). Idazketaren didaktika urtez urte. Hik Hasi 24, 11 or.
- Ibarra, I. (2010). Konstruktibismoa, hizkuntza idatzia eta eskola: idatzitakoak eta gaitz ulertuak. Leioan: EHU.
- Mesonero, M. (2005). *Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak.* Donostia: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Richards, J. C. & Rodgers, T. S. (1986). *Enfoques y métodos en la enseñanza de idiomas.* Madrid: Cambridge University Press.
- Rosas, R. & Sebastián, C. (2008). *Piaget, Vigotski y Maturana Constructivismoa a tres voces.* Buenos Aires: Aique.
- Saenz, M.; Mendizabal, A. & Oiarbide, J. (2010). *Urtxintxa 3 urte: irakaslearen gidaliburua.* Donostia: Ikaselkar.
- Saenz, M.; Mendizabal, A. & Oiarbide, J. (2012). *Urtxintxa 5 urte: irakaslearen gidaliburua.* Donostia: Ikaselkar.

## ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA: IRAKASLEEI EGINDAKO GALDETEGIA.

#### Urtxintxa Proiektua.

1. Zergatik uste duzu Betiko Ikastolak Urtxintxa metodoa aukeratu duela? Zein da zure ustez Urtxintxa metodoaren alderik positiboena? Eta negatiboena?
2. Beste metodo batekin konparatuta zeintzuk da Urtxintxa metodoaren abantailak? Eta desabantailak? Zerbait botatzen duzu faltan Urtxintxa metodoan?
3. Irakaslearen gidaliburuan jarduerak ondo azalduta agertzen dira? Irakasleak aparteko prestakuntza behar du metodo hau erabiltzeko ala nahikoa du metodoak dakarren informazioarekin?
4. Urtxintxa metodoak ikasleen aniztasuna kontuan hartzen du? Jardueren egokitzapena irakaslearen esku uzten du guztiz edo jardueren azalpenean moldaketa desberdinak proposatzen ditu?

#### Urtxintxa metodoaren irakurketa-idazketaren irakaskuntza.

5. Urtxintxa proiektua idazketa eta irakurketa lantzeko aproposa da? Proposatzen dituen jarduerak egokiak eta behar bestekoak dira hurrek irakurtzen eta idazten ikasteko?
6. Urtxintxa proiektuan irakurketa eta idazketa egunerokotasunean integratuta daude? Modu globalean edo isolatuan lantzen dira? Adibideak.
7. Urtxintxa proiektuak 3, 4 eta 5 urteko geletan irakurketa eta idazketa modu jarrai eta eraikitzaile batean lantzeko balio du?
8. Urtxintxa proiektuaren bidez irakurketa eta idazketa modu konstruktibista batetik lantzen dira? Eredu konstruktibistaren zein ezaugarri betetzen dira?

#### Material, jarduera eta ekintza motak.

8. Urtxintxako gidaliburuan idazketa eta irakurketa lantzeko zer motatako ariketa proposatzen dira? Zer lantzen da horiekin? Hurrek irakurtzen eta idazten ikasteko egokiak direla uzte duzu? Ariketak erraz egiten dira?

9. Proposatzen diren ariketa guztiak egiten dituzue? Zeintzuk lehenesten dituzue
10. Irakurketa lantzeko Urtxintxako gidaliburuan proposatzen dituztenaz gain, beste batzuk egiten dituzue?
11. Idazketa lantzeko Urtxintxa metodoan proposatzen diren jardueraz aparte, beste batzuk egiten dituzue? Zer jarduera motak egiten dituzue? Egunero zeintzuk?

#### **Irakaslearen rola.**

12. Idazketa eta irakurketa lantzerakoan zer-nolako jarrera izaten duzu? Nola jokatzeko duzu ikasleen produkzioen aurrean? Kontuan hartzen duzu ze fasean dauden edo modu zuzenean idazten dutenean zorientzen duzu?
13. Zein momentuetan lantzen da irakurketa eta idazketa zure gelan
14. Nola sustatzen duzu irakurketa eta idazketa 5 urteko gelan?
15. Irakurketa eta idazketa behatzerakoan zeri ematen diozu garrantzia? Idaztearen edo irakurtzearen ekintzari ala ondo idazteari edo irakurtzeari? Zer uste duzu dela garrantzitsuagoa? Zergatik?

#### **Ikasleen zeregina.**

16. Zure gelako hurrek irakurketaren eta idazketaren ikasketan protagonistak izaten dira? (Beti, askotan, batzuetan, gutxitan, inoiz ez). Azaldu.
17. Noiz idazten eta irakurtzen dute zure gelako hurrek? (jarduera edo fitxa bat egin behar dutenean, euren denbora librean, nik agintzen diedanean, nahi dutenean, egunero...)
18. Zure gelako hurren irakurketa eta idazketaren bilakaera nolakoa izan da 3urteko gelatik 5 urteko gelara?
19. Zure gelako ikasleek, zein irakurketa eta idazketa mailan edo fasean daude? Nola lortu dute maila horretara iristea? Erabiltzen duzuen metodologiari esker dela uste duzu?

## **A GELAKO IRAKASLEAREN GALDETEGIA.**

### **Urtxintxa Proiektua.**

#### **1- Zergatik uste duzu Betiko Ikastolak Urtxintxa metodoa aukeratu duela? Zein da zure ustez Urtxintxa metodoaren alderik positiboena? Eta negatiboena?**

Ikastolen Elkarteak sortutako metodologia da eta ikastoletan aurrera eramaten delako. Alderik positiboena haurra bere osotasunean hartzen duela esango nuke, erritmo ezberdinak kontutan hartzen ditu, norberaren garapena.... Haurra da protagonista, bere aurrezagutza izaten da abiapuntua gai berri batekin hasterako orduan, haren interesak...

Negatiboena, horrela definitu ahal bada, irakaslearentzat lan karga handia suposatzen duela.

#### **2- Beste metodo batekin konparatuta zeintzuk da Urtxintxa metodoaren abantailak? Eta desabantailak? Zerbait botatzen duzu faltan Urtxintxa metodoan?**

Metodo globala izanik egunerokotasunean dana lantzen duzu, zeharka bada ere. Hau da, ez dugu arloka lan egiten. Edozein ekintza egiterakoan (errutinak, fitxa, ipuina....) matematika, irakurketa, sormena, ingurunea.... lantzen dugu. Beste alde batetik ere malgutasuna ematen digu neurri batean ekintzak aukeratzeko orduan, unitate didaktikoaren proiektua erabakitzeko...

Desabantaila asko ez ditut topatzen. Aurrekoan malgutasuna aipatu dut eta neurri batean horrela bada ere, irakasleek markatzen dituzte denborak eta ekintzak.

#### **3- Irakaslearen gidaliburuan jarduerak ondo azalduta agertzen dira? Irakasleak aparteko prestakuntza behar du metodo hau erabiltzeko ala nahikoa du metodoak dakarren informazioarekin?**

Gidan ondo zehaztuta agertzen dira ekintza guztiak, bakoitzaren helburua etab. Irakasleek Ikastolen Elkarteak antolatutako formakuntza jasotzen dute. Urtero egiten da formakuntza eta horrela irakasle berriek parte hartzeko aukera izaten dute.

**4- Urtxintxa metodoak ikasleen aniztasuna kontuan hartzen du? Jardueren egokitzapena irakaslearen esku uzten du guztiz edo jardueren azalpenean moldaketa desberdinak proposatzen ditu?**

Bai, Batzuetan gida liburuan ekintza bat aurrera eramateko proposamen ezberdinak agertzen dira. Hala ere, irakaslea da taldea ezagutzen duena eta moldaketak egin behar direnean egokiena.

**Urtxintxa metodoaren irakurketa-idazketaren irakaskuntza.**

**5- Urtxintxa proiektua idazketa eta irakurketa lantzeko aproposa da? Proposatzen dituen jarduerak egokiak eta behar bestekoak dira hurrek irakurtzen eta idazten ikasteko?**

Bai. Lehenik eta behin umeen interesa piztea da Urtxintxaren helburua. Ondoren tresna asko eskaini egiten dizkio eta hurrak interesa, heldutasun mailaren arabera... aurrerapausoak egiten ditu eta kasu askotan irakurtzen eta idazten bukatzen dute.

**6- Urtxintxa proiektuan irakurketa eta idazketa egunerokotasunean integratuta daude? Modu globalean edo isolatuan lantzen dira? Adibideak.**

Bai, modu globalean. Errutinak egiterakoan: data jartzerakoan, urtebetetze datak, materiala banatzerakoan (arduradunak egiten du), ipuina aztertzen dugunean (idazlearen izena, marrazkigilea...), .....menua idazterakoan.... Hizkien soinua lantzen dugu. Arduradunaren izenaren lehenengo hizkiarekin hitzak, hiztegi jolasak.....

**7- Urtxintxa proiektuak 3, 4 eta 5 urteko geletan irakurketa eta idazketa modu jarrai eta eraikitzaile batean lantzeko balio du?**

Bai.

**8- Urtxintxa proiektuaren bidez irakurketa eta idazketa modu konstruktibista batetik lantzen dira? Eredu konstruktibistaren zein ezaugarri betetzen dira?**

Bai. Lehen aipatu dudan bezala ume bakoitzaren garapena kontutan hartzen duenez, bakoitzak bere erritmoa eramaten du. Lorpenak bakoitzarenak dira.

**Material, jarduera eta ekintza motak.**

**9- Urtxintxako gidaliburuan idazketa eta irakurketa lantzeko zer motatako ariketa proposatzen dira? Zer lantzen da horiekin? Haurrek irakurtzen eta idazten ikasteko egokiak direla uzte duzu? Ariketak erraz egiten dira?**

3 urteko gelan hasten gara Urtxintxa metodoa erabiltzen. Ume bakoitzaren izena da abiapuntua. Euren izena identifikatzea da lehenengo pausua, ondoren lagunena. Gelako txoko guztiak izendatuta daude. Oharrak idazteko ohitura ikastola eta familiaren arteko komunikazioa lantzeko tresna bezala....

**10- Proposatzen diren ariketa guztiak egiten dituzue? Zeintzuk lehenesten dituzue?**

Ez. Unitate Didaktiko bakoitzean ekintza asko agertzen dira.

**11- Irakurketa lantzeko Urtxintxako gidaliburuan proposatzen dituztenaz gain, beste batzuk egiten dituzue?**

Bai. Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko geletan kontzientzia fonologikoa lantzen dugu (egunerokoaz gain) ikasturtean behin modu sistematiko batean.

**12- Idazketa lantzeko Urtxintxa metodoan proposatzen diren jardueraz aparte, beste batzuk egiten dituzue? Zer jarduera motak egiten dituzue? Egunero zeintzuk?**

5 urteko gelan hizkien fitxak egiten ditugu. Saiatzen gara astean behin egiten eta alfabetoa osatzerakoan etxera eramaten dute. Fitxa bakoitzaren atzealdean izena eta data idazten dute eta horrela gurasoek ere bakoitzaren garapena ikusi ahal dute.

**Irakaslearen rola.**

**13- Idazketa eta irakurketa lantzerakoan zer-nolako jarrera izaten duzu? Nola jokatzeko duzu ikasleen produkzioen aurrean? Kontuan hartzen duzu ze fasean dauden edo modu zuzenean idazten dutenean zorientzen duzu?**

Ume bakoitza mundu bat da. Ume guztiak zorientzen ditut, haien arteko ezberdintasunak modu negatiboan erabili ez dezaten saiaterik naiz. Guztiok irakurtzen



eta idazten ikasiko dutela argi esaten diet. Elkarlana bultzatzen dugu. Esate baterako, arduradunak lan-koadernoak banatu behar dituenean ez badakizki gelako eniznak umeei galdetu egiten die. Ume batek galdera bat egiten duenean nik erantzun beharrean eta norbaitek dakien galdetzen dut.

**14- Zein momentuetan lantzen da irakurketa eta idazketa zure gelan?**

Momentuoro.

**15- Nola sustatzen duzu irakurketa eta idazketa 5 urteko gelan?**

Lehen aipatu dudan bezala. Egun osoan zehar lantzen den gauza bat da. Ez dugu aparteko arlo bat bezala lantzen.

**16- Irakurketa eta idazketa behatzerakoan zeri ematen diozu garrantzia? Idaztearen edo irakurtzearen ekintzari ala ondo idazteari edo irakurtzeari? Zer uste duzu dela garrantzitsuagoa? Zergatik?**

Garrantzitsuena prozesua izaten da beti eta ez emaitza. Kurtso hasierako guraso bileran saiatzen gara argi azaltzen hau. Horregatik fitxa bat egiten dugunean bidean landu ditugun gauza guztiek dute benetako garrantzia eta ez fitxa bera. Era berean haurrak etxean kontatzen landu duguna... fitxa bakoitzean egin duguna.... horrek dauka balioa.

**Ikasleen zeregina.**

**17- Zure gelako hurrek irakurketaren eta idazketaren ikasketan protagonistak izaten dira? (Beti, askotan, batzuetan, gutxitan, inoiz ez). Azaldu.**

Beti esango nuke nik. Umeentzat esanguratsuak izaten diren ekintzak egiten ditugu. Euren interesak eta aurrezagutzak kontutan hartzen ditugu.

**18- Noiz idazten eta irakurtzen dute zure gelako hurrek? (jarduera edo fitxa bat egin behar dutenean, euren denbora librean, nik agintzen diedanean, nahi dutenean, egunero...)**

Momentu askotan. Goizero denbora librea izaten dute eta horretan batzuk marrazkia, ipuinak, antzerkia.....Gero ekintza zehatz bat egiterakoan, arduradunak bere lana

betetzen duenean, fitxa egin behar denean... Hau da, momentu askotan haurrak berak erabakitzen du eta beste batzuetan nik esaten dudanean.

**19- Zure gelako haurren irakurketa eta idazketaren bilakaera nolakoa izan da 3urteko gelatik 5 urteko gelara?**

Oso pozik nago. Orokorrean talde honek erakusten duen jakin-mina, ikasteko grina oso altua da. Aurreko ikasturtean gelako mutiko bat irakurtzen hasi zen bat batean (honela izaten da) eta honek besteengan arreta, interesa piztu zuen.

**20- Zure gelako ikasleek, zein irakurketa eta idazketa mailan edo fasean daude? Nola lortu dute maila horretara iristea? Erabiltzen duzuen metodologiari esker dela uste duzu?**

Momentu honetan ikasle gehienek badakite irakurtzen eta idazten. Metodologiak eragina izan duela argi daukat. Interesa piztu eta irakurketa –idazketaren beharra ikustarazi egitea da helburua. Etxera eramateko oharrak, etxetik ikastolara ere oharrak... (autobusa, merienda gela.....).

## **B GELAKO IRAKASLEAREN GALDETEGIA.**

### **Urtxintxa Proiektua.**

**1- Zergatik uste duzu Betiko Ikastolak Urtxintxa metodoa aukeratu duela? Zein da zure ustez Urtxintxa metodoaren alderik positiboena? Eta negatiboena?**

Betikok berak, beste ikastola batzuekin batera, sortu du. Alde positiboan, haurren inteligentzi aniztasuna aintzat hartzen dituela (musikala, emozionala, artistikoa, logiko matematikoa, hizkuntz inteligentzia,...) eta lan egiteko malgutasuna nabarmenduko nituzke. Alde negatiboa berriz, metodo gidatua dela. Hau da, irakasleak malgutasunez aurrera eramango du bai, baina, beti gaia, fitxa edo jolasa egongo den erabakiko du.

**2- Beste metodo batekin konparatuta zeintzuk da Urtxintxa metodoaren abantailak? Eta desabantailak? Zerbait botatzen duzu faltan Urtxintxa metodoan?**

Abantaila edo, metodo integrala dela. Hau da, arloak ez dira modu isolatuan lantzen. Desabantaila berriz, aurrekoan aipatutako gauza bera.

Faltan bota edo, psikomotrizitatea. Psikomotrizitateak, gorputzaren bitartez garapen kognitiboa eta afektiboa landu egiten du eta urtxintzak ez du berea egiten.

**3- Irakaslearen gidaliburuan jarduerak ondo azalduta agertzen dira? Irakasleak aparteko prestakuntza behar du metodo hau erabiltzeko ala nahikoa du metodoak dakarren informazioarekin?**

Bai, gidaliburua nahiko argia da. Dena den, urtero metodoaren inguruko formakuntza mintegiak eskaintzen dira. Hauetan parte hartzea beti interesantea delarik.

**4- Urtxintxa metodoak ikasleen aniztasuna kontuan hartzen du? Jardueren egokitzapena irakaslearen esku uzten du guztiz edo jardueren azalpenean moldaketa desberdinak proposatzen ditu?**

Bai. Jardueren egokitzapena irakaslearen esku gelditzen da eta batzuetan moldaketak ere planteatzen ditu.

**Urtxintxa metodoaren irakurketa-idazketaren irakaskuntza.**

**5- Urtxintxa proiektua idazketa eta irakurketa lantzeko aproposa da? Proposatzen dituen jarduerak egokiak eta behar bestekoak dira haurrek irakurtzen eta idazten ikasteko?**

Bai. Baietz uste dut. Haurren garapen maila kontutan hartzen du, haurrak malgutasunez, bere erritmoa eta interesa errespetatuz idazten-irakurtzen has daitezten.

**6- Urtxintxa proiektuan irakurketa eta idazketa egunerokotasunean integratuta daude? Modu globalean edo isolatuan lantzen dira? Adibideak.**

Bai. Presente dago eta modu globalean lantzen da. Adibidez, Proiektua ortua egitea izan daiteke. Haurrek haziak landatuko dituzte, hazien rotuloak idatziko dituzte etab.

**7- Urtxintxa proiektuak 3, 4 eta 5 urteko geletan irakurketa eta idazketa modu jarrai eta eraikitzaile batean lantzeko balio du?**

Bai.

**8- Urtxintxa proiektuaren bidez irakurketa eta idazketa modu konstruktibista batetik lantzen dira? Eredu konstruktibistaren zein ezaugarri betetzen dira?**

Bai.

**Material, jarduera eta ekintza motak.**

**9- Urtxintxako gidaliburuan idazketa eta irakurketa lantzeko zer motatako ariketa proposatzen dira? Zer lantzen da horiekin? Haurrek irakurtzen eta idazten ikasteko egokiak direla uzte duzu? Ariketak erraz egiten dira?**

Denetarik proposatzen du.

- Unitate guztietan ipuin bat dago, batzuetan ipuina komiki moduan aurkeztuko da eta hutsuneak betetzeko eskatuko die. Horretarako lehenengo haurren aurrezagutzak aktibatuko ditugu eta ondoren testua planifikatu eta adostuko dugu.

- Ikusi makusi. Hiztegia lantzen dugu, irudia eta hitzak izango dituzte eta bikotea elkartzea izango dute helburu.
- Olerkiak, igarkizunak, entzunaldiak, artelanak, abestiak, elkarrizketetan, eguneko errutinetan,...denetan irakurketa eta idazketa zehar lerro modura landuko da.

Egokiak dira bai, hala ere taldearen arabera ekintza malgutasunez egokitzeko aukera daukagu. Adin honetan taldearen eboluzioa desberdina da oso, denbora eman behar zaie. Haur bakoitzaren produkzioa errespetatuko da.

**10- Proposatzen diren ariketa guztiak egiten dituzue? Zeintzuk lehenesten dituzue?**

Gehienetan bai, hala ere, baten bat egokia ez dela pentsatzen badugu askatasunez moldatu edo ez egitea aukera bezala planteatu igiten da.

**11- Irakurketa lantzeko Urtxintxako gidaliburuan proposatzen dituztenaz gain, beste batzuk egiten dituzue?**

Osagarri diren beste jarduera batzuk ere egiten ditugu. Kontzientzia fonologikoa, hizkiak lantzeko fitxak etab.

**12- Idazketa lantzeko Urtxintxa metodoan proposatzen diren jardueraz aparte, beste batzuk egiten dituzue? Zer jarduera motak egiten dituzue? Egunero zeintzuk?**

Aurrekoaren berdina eta egunero arduradunak bere izena, data eta menua idatziko du arbelean.

**Irakaslearen rola.**

**13- Idazketa eta irakurketa lantzerakoan zer-nolako jarrera izaten duzu? Nola jokatzeko duzu ikasleen produkzioen aurrean? Kontuan hartzen duzu ze fasean dauden edo modu zuzenean idazten dutenean zorientzen duzu?**

Jarrera zabala izatea komeni da, haur bakoitzaren errealitatea oso diferentea da eta gelan hori islatu egiten da. Haien produkzioak errespetuz jasotzen ditut.

Zein fasetan dauden kontutan izan behar duzu eta zoriondu baino motibatu egiten ditut.

**14- Zein momentuetan lantzen da irakurketa eta idazketa zure gelan?**

Momentu oro.

**15- Nola sustatzen duzu irakurketa eta idazketa 5 urteko gelan?**

Haien interesez baliatu egiten naiz askotan, beste batzuetan “seduzitu” edo egiten ditut, jolasaren bitartez...

**16- Irakurketa eta idazketa behatzerakoan zeri ematen diozu garrantzia? Idaztearen edo irakurtzearen ekintzari ala ondo idazteari edo irakurtzeari? Zer uste duzu dela garrantzitsuagoa? Zergatik?**

Ekintza berari garrantzia ematen diogu nahiz eta batzuetan “ondo/gaizki” epaitze horretan sartzen garen. Haien modura idazteko esaten diegu, ea zer entzuten duten esaten diegu, ... horri erreparatu, arreta ipini eta idatzi.

**Ikasleen zeregina.**

**17- Zure gelako hurrek irakurketaren eta idazketaren ikasketan protagonistak izaten dira? (Beti, askotan, batzuetan, gutxitan, inoiz ez). Azaldu.**

Bai. Gelan arduradunaren figura dago eta tokatzen zaionari egunero data, bere izena eta menua idatziko du arbelean (hau asko gustatzen zaie), urtebetetzetan lagunei marrazkia egiteaz gain nahi duenak mezu bat idatzi diezaioke, errotuloak egiten dituzte etab.

**18- Noiz idazten eta irakurtzen dute zure gelako hurrek? (jarduera edo fitxa bat egin behar dutenean, euren denbora librean, nik agintzen diedanean, nahi dutenean, egunero...)**

Modu desberdin askotan. Batzuetan gidatua izaten da, beste batzuetan gonbitea egiten zaie, espontaneoki ateratzen bazaie ere onartu egiten zaie.

**19- Zure gelako haurren irakurketa eta idazketaren bilakaera nolakoa izan da 3urteko gelatik 5 urteko gelara?**

Ordezkoa naiz, ez da nire gela izan.

**20- Zure gelako ikasleek, zein irakurketa eta idazketa mailan edo fasean daude? Nola lortu dute maila horretara iristea? Erabiltzen duzuen metodologiari esker dela uste duzu?**

Gutxi batzuk idazten dute dagoeneko, gehienak fase silabikoan daude eta gutxi batzuk ez dute interesik agertu. Nahiz eta haurraren garapen maila zerikusi handia duela uste dudana, metodoak ere lagunduko duela uste dut.

## 2. ERANSKINA: BEHAKETEN TXANTILOIA.

### A

<b>ZER</b>	Egunerokotasunean hizkuntza idatziaren inguruan egiten diren jarduerak.
<b>NOIZ</b>	Hizkuntza idatziaren inguruko jardueraren bat egin denean.
<b>AUKERA POSIBLEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Goizeko errutinetan egiten direnak</li><li>- Fitxetan proposatzen direnak</li><li>- Haurrak denbora librea dutenean egiten dituztenak.</li><li>- Beste batzuk</li></ul>

### B

<b>ZER</b>	Haurren autonomia maila irakurketarako eta idazketarako.
<b>NOIZ</b>	Haurrek idazten edo irakurtzen dutenean.
<b>AUKERA POSIBLEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ez dute egiten irakasleak agintzen ez badie.</li><li>- Nola idazten edo irakurtzen den galdetzen dute.</li><li>- Haiek bakarrik idazten eta irakurtzeko ohitura daukate.</li><li>- Beste batzuk</li></ul>

### C

<b>ZER</b>	Noiz irakurtzen eta idazten dute haurrek.
<b>NOIZ</b>	Haurrek irakurtzen edo idazten dutenean.
<b>AUKERA POSIBLEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Irakasleak ariketa bat proposatzen duenean.</li><li>- Denbora librea dutenean.</li><li>- Informazioa behar dutenean.</li><li>- Beste batzuk</li></ul>



**D**

<b>ZER</b>	Irakaslearen rola irakurketa edo idazketa lantzeko orduan.
<b>NOIZ</b>	Irakasleak hizkuntza idatziarekin zer ikusia duen jarduera bat proposatzen duenean.
<b>AUKERA POSIBLEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Haurrak beren modura idazten eta irakurtzen uzten ditu, ez ditu oztopatzen.</li><li>- Ikasleak zuzentzen ditu.</li><li>- Ikasleen erantzunetara aurreratzen da.</li><li>- Beste batzuk</li></ul>

**E**

<b>ZER</b>	Nola lantzen da irakurketa eta idazketari Urtxintxa metodoaren bidez.
<b>NOIZ</b>	Urtxintxak proposatzen duen jardueraren bat egiten denean.
<b>AUKERA POSIBLEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Fitxen bidez.</li><li>- Errutinen bidez, egunerokotasunean.</li><li>- Irakurketa eta idazketa lantzeko jarduera espezifikoak.</li><li>- Beste batzuk</li></ul>

3. ERANSKINA: IKASLEEI EGINDAKO IDAZKETA FROGA.

A GELA.		EGUZKIA ETA EURIA, ERROMAKO ZUBIA	
1	IBERDARI	URTE 5	FASEA 2
EISA DIA EESA			
2	JOANE	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
3	OHANE	URTE	FASEA 5
EGUZKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
4	ANDERBO	URTE 5	FASEA 5
EGUZKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
5	GILLEN	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
6	NOBEI	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
7	GEA'N	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
8	MARFER	URTE	FASEA 4
EGUZKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
9	ANDERGO	URTE 5	FASEA 4
EGUSKIA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
10	IRENE	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
11	JUNE	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
12	JUNE	URTE	FASEA 5
EGUZKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			
13	MAIA	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA			

14	MATIN	URTE 5	FASEA 5
EGUSIA ETAEURIA ERROMAKOZUBIA			
15	JON	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETAEURIA ERROMAKOSURIA			
16	LEIZURI	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETAEURIA ERROMAKOSURIA			
17	IBAI	URTE	FASEA 5
EGURKIA ETAEURIA ERROMAKOZUBIA			
18	AINHIZE	URTE	FASEA 5
EGUSKIA ETAEURIA ERROMAKOSURIA			
19	ARTITZA	URTE	FASEA 4
EGUSIA ETAEURIA ERROMAKOZUBIA			
20	HEGOI	URTE	FASEA 5
HEGURKIA ETAEURIA ERROMAKOZUBIA			

B GELA. EGUZKIA ETA EURIA, ERROMAKO ZUBIA		
1 MARKEL	URTE 2	FASEA 5
EGUSKIA ET EURIA ERROMAKO ZUBIA		
2 VIVAZ	6URTE	FASEA 4
EGUZKIA - EURIA - ERROMAKO ZUBIA		
3 EUNATE	5URTE	FASEA 5
EGUZKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA		
4 EKAITZ	2URTE	FASEA 4
EUSIA ETA EURIA ERROMIA		
5 LUR	5URTE	FASEA 5
EURIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA		
6 ENERITZ	6 URTE	FASEA 3
EUSIA EURIA ERROMIA		
7 ENARA	2 URTE	FASEA 3
EURIA ETA EURIA ERROMIA		
8 AINGERU	2URTE	FASEA 5
EGUZKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA		
9 SOKIN	2URTE	FASEA 5
EGUZKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA		
10 LEIRE	6URTE	FASEA 4
EURIA EURIA ERROMAKO ZUBIA		
11 EIDER	2URTE	FASEA 3
EURIA ET EURIA ERROMIA		
12 JUNE	2 URTE	FASEA 4
EGUSIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA		
13 AMARTZ	4 URTE	FASEA 4
EURIA ETA EURIA ERROMIA		

14 AUR	5URTE	FASEA 4
EGUSIA ETA EUIA ERROZUA		
15 XABIER	5URTE	FASEA 4
EUZIA ETA EIA ERROMAZIA		
16 AITOR	6URTE	FASEA 5
EGUZIA ETA EDIA ERROMAKOZOBIA		
17 OIHANE	5URTE	FASEA 4
EUZIA EUIA ERROMATZIA		
18 IRATZ	URTE 2	FASEA 3
EUA ERMOUA ERAOUBA		
19 HAIZEA	5URTE	FASEA 4
EGUSKIA ETA EUDA ERROMAKOZUBA		
20 SENAT	7URTE	FASEA 3
EUA ETA ERROZUBA		
21 MERIA	5URTE	FASEA 2
EAXEEA EKHAAGFIK		